



BILERA-DEIA, ESKABIDEA ETA ZIURTAGIRIA

INFORMAZIO OROKORRA

MATRIKULA EPEA	Irailaren 9tik urriaren 2ra bitartean	
HARTZAILEAK	IKASLE KOPURUA	Guztira 25 ikasle
Unitate administratiboetako eta antolakuntza sanitarioko unitateetako langileak.		
Erabilera-planaren eraginpean dauden langileek lehentasuna izango dute ikastaro honetan parte hartzeko.		
BETE BEHARREKO BALDINTZAK	- Bigarren edo hirugarren hizkuntza-eskakizuna gaitututa izatea	
LEHENTASUNAK	- Lehentasuna izango dute Gutuna eta ofizioa online ikastaroa eginda dutenek. - 3HE egiaztatuta dutenek lehentasuna izango dute.	
AUKERAKETA IRIZPIDEAK	1. Langile finkoak, bitartekoak eta behin-behinekoak, hurrenkera horretan. 2. Lanpostuak derrigortasun-data edukitzea. 3. Lanpostua dagoen unitatearen lehentasuna zerbitzu-erakundearen Euskara Planaren arabera.	
IRAKASLEA	IVAP	
BAJA EMATEKO EPEA	Azaroaren 2a eta 3a	

IKASTAROARI BURUZKO INFORMAZIOA

DATAK	Azaroaren 2tik 30era
IRAUPENA	15 ordu
TUTORETZAK	Ikastaroan tutoreak honako lanak egingo ditu: - Mezu bat bidaliko dio ikasleari ikastaroari ongi etorria emateko plataformaren bitartez. - Kontsultak jaso eta argitu: - Ikastaroaren EDUKIArekin zerikusia dutenak, plataformako foro eta plataformako bestelako baliabideen bidez. - Erantzuna 24 orduan emango dute. - Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egin.

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	Bilera-deiak, eskabideak eta ziurtagiriak euskaraz idazteko oinarritzko irizpideak ikastea.
GAITASUNAK	Ikasleak prestakuntza ekintza amaitzean egoki erabiliko ditu: - Bilera-deia idazteko oinarritzko irizpideak. - Eskabidea idazteko oinarritzko irizpideak. - Ziurtagiria idazteko oinarritzko irizpideak. - Testu elebidunak idazteko oinarritzko irizpideak.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Autoprestakuntzako lineako ikastaroa da, teoria eta praktika uztartzen dituen. Ikastaroak 5 atal nagusi ditu eta, bertan, hainbat unitate didaktiko. Unitate bakoitzean leiho tutorial baten bidez teoria landu eta programak berak edo norberak zuzentzeko ariketa batzuk proposatuko dira; gainera, programak aukera ematen du jarraibideak ikusteko, entzuteko edota irakurtzeko. Horrez gain, unitate gehienek tutoreari bidali beharreko jarduera bana izango dute.

Irakasle batek gidatuko du ikasle-taldea, eta bakoitzaren urratsak jarraituko ditu.

PROGRAMA

- | | |
|-----------------------|---|
| 1. Atarikoa | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ongietorria eta nabigazioa. ▪ Ikastaroaren helburua. ▪ Ikastaroaren atalak. |
| 2. Bilera-deia | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Egitura. ▪ Hartzailearen datuak. ▪ Izenburuak eta azpi-izenburuak. ▪ Hasierako eta bukaerako agurrak. ▪ Oharrak. ▪ Bilerari buruzko datuak. ▪ Partaideak. ▪ Aztergaiak. ▪ Izenpea. ▪ Toki-egunak. |
| Gramatika | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Letra larria eta letra xehea. ▪ Nagusia, nagusiena. ▪ Beste bat, bestea, berria. ▪ Komunztadura. ▪ Erdia. ▪ Guztia. |
| Estiloa | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Erdal formulak euskaraz. ▪ Kalkoak saihestu. ▪ Erdal gerundioaren erabilera okerra. ▪ Egilea agerian utzi. |
| 3. Ziurtagiria | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Egitura eta osagaiak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Izenburua eta azpi-izenburuak. ○ Interesdunen datuak. ○ Egiaztapena. ○ Informazio osagarria. ○ Amaierako esaldia. ○ Egiaztatzailearen datuak. ○ Toki-egunak. ▪ Parentesiak. ▪ Letra etzana. ▪ Denbora-tarteak. ▪ Informazio osagarria. ▪ Amaierako esaldia. ▪ Erdal formulak euskaraz. |
| 4. Eskabidea | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Egitura eta osagaiak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Izenburua eta azpi-izenburuak. ○ Eskatzailearen datuak. ○ Azalpena. |

- Eskaera.
- Aurkeztutako agiriak.
- Azken esaldia.
- Izenpea.
- Toki-egunak.
- Alferrikako erlatiboak.
- Estilo nominala.
- Hitzen egokitasuna.
- Hitz elkartuak.
- -go atzikia eta izen multzokariak.

5. Testu elebidunak

- Nola diseinatu testu elebidunak.
- Nola nabarmendu hizkuntza bat.

EBALUAKETA

Ebaluazioaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.

Ikastaroak 6 jarduera ditu eta horietan oinarrituko da ebaluazioa. Ikasleak ikastaroko jarduerak egin eta bidaliko dizkio irakasleari, honek ikasleari zuzendu eta lanaren feedbacka eman diezaion. Era berean, tutoreak gomendatuko du edukiak noizko ikasi eta jarduerak noizko egin behar diren.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen lineako gogobetetze-inkesta plataforma barruan dago ikastaroko edukien azpian.

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Aprobetxamenduko ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- > Irakasleari ikastaroko jarduera guztiak bidali.
- > Ikastaroko 6 jardueretatik 5ek, gutxienez, gai kalifikazioa jasotzea.

ANTOLATZAILEA

EUSKARA ZERBITZU KORPORATIBOA

KOORDINATZAILEA

Zerbitzu-erakundeetako euskara zerbitzuak
